

EROSKI-K SUPERMERTATU BAT INAUGURATUKO DU GAUR ERANDION

- **Saltoki berriak elikagai freskoetan espezialista den gama bat eskaintzen du, eta tokiko produktuen alde egiten du**
- **585 metro koadrotik gorako salmenta areto bat du, eta 17 langile ditu**
- **Kooperatibaren 21. denda da Bilbo eskuinaldean**

Erendio, 2021eko urriaren 28a.- [EROSKI](#)k supermerkatu bat ireki du Erandioko Madaripe etorbideko 4.ean, Bizkaian. Denda berriak EROSKI/City du izena, eta 585 metro koadrotik gorako salmenta aretoa du. 17 langile arituko dira, formakuntza jaso dutenak freskoen atalean espezializatzeko eta bezeroei arretarik onena eta erantzunak eskaintzeko.

Hilero-hilero, eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpen horretan, EROSKI Cluba da erakusgarriak behinena. Bezero-bazkideak markarekin fidelizatzeko programa da, eta EAEn 848.000 bazkide inguru ditu; gainera, oso sustapen erakargarriak ditu, baita Travel Club txartelak lehendik zituen abantaila guztiak ere.

Tokian tokiko produktuek garrantzi handia

"Produktu freskoen eta tokian tokiko alde egiten dugun apustua gure nortasun ikurretako bat kooperatiba garen aldetik", esan du EROSKI iparraldean dituen supermerkatuen zuzendariak, Ismene Fulgencio. EROSKI 9.000 produktu inguru merkaturatzen ditu, eta hemengo 1.700 hornitzaile ingururekin dihardu, haiei 740 milioi eurotik gorako erosketak eginez urtero.

Produktu dietetikoek eta biologikoek ere beren tokia dute supermerkatu berrian, elikagai joera berri guztiak biltzen dituzten guneekin. Gainera, atal horretan, produktu espezifiko sorta zabal bat dago, elikagai intolerantziak dituztenentzat (glutena, laktosa...) eta gantz, azukre eta gatz gutxi jan behar dutenentzat.

Eraginkorragoa eta iraunkorragoa

Era berean, ingurumen aldetik iraunkorragoa den saltokia da. Denda eredu berri horrek hobekuntzak dakartza klimatizazioan, hozte industrialaren sorkuntzan eta argiztapenean. Hala, berrikuntzetako batzuk baino ez dira gutxiago kutsatzen dutenak hozkailu eraginkorrak, hozte altzariak ixteko modua eta LED argiaren erabilera, zeinek modua ematen baitute saltokiak ingurumenean eragiten duen inpaktua gutxitzeko eta bezeroentzat argi eta tenperatura atseginagoak lortzeko. EROSKIren belaunaldi berriko dendak dagoeneko sare osoko %70 baino gehiago

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

dira; ekoeraginkorragoak dira, eta energia aldetik zenbait neurri dakartzate %35 gutxiago ere murrizten dutenak ohiko supermerkatu baten energia kontsumoa.

EROSKI Bizkaian

Kooperatibak Bilbo eskuinaldean irekitzen duen 21. denda da. 2020. urtean amaituta, EROSKI 150 saltokitara iritsi da Bizkaian, dela hipermerkatu eta supermerkatu propio dela frankiziatu eta cash & carry; horretaz gainera, baditu gasolindegia, optikak, bidaia bulegoak eta [Forum Sport](#) eta [Dooers](#) dendak, baita [online supermerkatua](#) ere.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)